

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula

EHUagenda 2030en
JARRAIPENA

www.ehu.eus

Dokumentu hau *Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU)* eta *Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak* (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Saila) egin dute, ENEA Estrategías para la Sostenibilidad, SLren lankidetzaz.

2019

eman ta zabai zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA



UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula



EDUKIEN AURKIBIDEA

Aurkezpena	6
Helburuak eta erabilerak	8
Metodologia	10
Hasierako egoera: 2017/18 ikasturteko emaitzak	18
Adierazleen fitxa metodologikoak	23
Eranskina: 2017/18 ikasturtearen adierazleen datuei eginiko oharra	82

IRUDIEN AUKIBIDEA

1. irudia. Taula egiteko eratutako gogoeta taldearen laneko sekuentzia.	10
2. irudia. UPV/EHUren jarduera nagusiak	10

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula UPV/EHUK zer GIH lortzen lagunduko duen identifikatzeko aztertutako dokumentuak eta planak	12
2. taula UPV/EHUK zer GIH lortzen lagunduko duen 2019an indarrean diren planen inplementazioaren bidez	13
3. taula UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula	14
4. taula UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula, 2017/18 ikasturtea	15
5. taula UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleak, 2017/18 ikasturtea	19

AURKEZPENA

2030 Agenda¹, 2015ean onartutakoa, Garapen Iraunkorraren arloan eragin gehien izan duen nazioarteko erreferenteetako bat da, eta herrialde askotako gobernu, enpresa eta erakundeetan ari da onartzen. Erakunde horiek abian jartzen dituzten konpromisoek zehaztuko dute "Ez utzi inor atzean" esaera duen estrategia honen arrakasta.

Unibertsitateek eginkizun garrantzitsua dute 2030 Agenda betetzeko garaian, eginkizun aktiboa eduki behar baitute **hezkuntzan, ikerketan, gizartearekiko harremanetan eta gobernantza ereduan**. Nazio Batuen agindu horri egiten dieten ekarpena erronka bat da bere horretan, unibertsitateei beren jarduera birpentsatzeko eskatzen dien neurrian, hura modu pro-aktiboan eta operatiboan helmuga jakinetara orientatzeari begira.

2030 Agendak Garapen Iraunkorrerako 17 helburu planteatzen ditu, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari lotutako 169 helmuga biltzen dituztenak. Horrekin batera, helmuga horien jarraipenerako 232 adierazle planteatzen ditu. Eragiketak orokorrenetik zehatzarenera hedatzen direnez, unibertsitateek GIHen irismena eta edukiak, helmugak eta adierazleak aztertu behar dituzte nahitaez, beren testuinguruan.

Nola hasi GIHak lantzen unibertsitatean² gidak, Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sareak (REDS / SDSN-Spain) gaztelaniaz argitaratu duenak, lehen hurbilketa bat egiten du, unibertsitateek beren lan arloetatik GIHei zer ekarpen egin diezaieketen adierazita. Hain zuzen, gida honek aipatzen du unibertsitateak ez direla zerotik abiatzen, eta dagoeneko GIHetan laguntzen duten zenbait unibertsitate eremu aipatzen ditu. Dena dela, benetako erronka, ezbairik gabe, 2030 Agenda ikuspegi integral batek lantzea da: itxuraz independenteak diren maila anitzeko eragileak eta gaiak konektatzeko, ikuspegi

eta lan egiteko modu berriak behar dira, ahalegin handi bat, baldin eta pertsonentzako eta planeta-entzako etorkizun hobea lortu nahi badugu.

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), Euskadiko unibertsitate publiko gisa, gizartearen goi mailako hezkuntza premiei erantzuten die, eta kalitatezko ikerketa gauzatzen du, lankidetzaren bidez ezagutza sortuta eta gero lurralde inguruneari eta nazioarteko komunitateari transferituta. Euskal gizartearen erroturiko unibertsitatea da, munduari irekita dagoena, eta gogoeta eta pentsamendu kritikorako espazio aske bat eskaintzen duena. Definizio horrek, bere horretan, 2030 Agenda erantzukizunez, zorroztasunez eta sormenez lantzerako behartzen du gure unibertsitatea.

UPV/EHUren **Plan Estrategikoak³** (2018-2021) ideia hori jaso du, eta unibertsitatea garapen iraunkorra, inklusioa eta gizarte konpromisoa bultzatzen dituen erakunde bihurtzea proposatzen du. **Garapen iraunkorraren aldeko EHUagenda 2030en⁴** definizioak asmo hori biltzen du, eta IKD hezkuntza ereduaren⁵ berrirakurketa baten bidez zehazten du, **i³**-ren ideiaz indartuta (ikaskuntza, ikerketa, iraunkortasuna) eta hiru plan sektorial hauek definituta: Berdintasun Campusa, Inklusio Campusa eta Planeta Campusa, bakoitzak bere helburuak eta ekintzak dituelarik.

Edonola ere, ezinbesteko deritzogu, EHUagenda 2030ekin batera, GIHak betetzeari dagokionez UPV/EHU zer oinarri lerrotan dagoen marratzeari, ezarritako helburuak lortzeko bidean egindako aurrerapenaren jarraipena egitea ahalbidetuko duten adierazle neurgarri eta operatiboan taula baten bidez. Horretarako prozesu bat diseinatu da, eta horren azken emaitza **UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula** hau da.


1 <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2015/09/la-asamblea-general-adopta-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/>

2 SDSN Australia/Pacific (2017): Getting started with the SDGs in universities: A guide for universities, higher education institutions, and the academic sector. Australia, New Zealand and Pacific Edition. Sustainable Development Solutions Network-Australia/Pacific, Melbourne.

3 <https://www.ehu.eus/documents/1769324/0/Plan+estrategico+cas+18-21/46a4a9e6-ad8a-8cb9-c701-2269fdd2179f>

4 <https://www.ehu.eus/es/web/iraunkortasuna/agenda-2030>

5 <https://www.ehu.eus/es/web/sae-helaz/ikd>



Dokumentu honetan, UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula zehatzeko erabilitako lan metodologia aurkezten dugu. Lehenik eta behin, taularen helburuak eta erabilerak lantzen dira; gero, sekuentzia metodologikoa deskribatzen da, eta, azkenik, lan horren produktuak aurkezten dira: helburuen eta helmugen mapeoa, adierazleen taula, 2017/18 ikasturtearen oinarritzko lerroa mar-

katzen duten hasierako adierazleak, eta adierazle bakoitzaren fitxa teknikoak.

Hemendik, eskerrak eman nahi dizkiegu prozesu honetan parte hartu duten pertsona guztiei. Espero dugu taula hau erabilgarria izatea, unibertsitate publikoa erakunde benetan iraunkorra izan dadin.

HELBURUAK ETA ERABILERA

2.1. Helburuak

Dokumentu honetan egin eta jasotako lanaren helburu nagusia da: **Garapen iraunkorreko adierazleen lehen taula** zehaztea (GIHen gakoan) UPV/EHUrako, lorpenak neurtu, monitorizatu eta gardentasunez komunikatu ahal izateko.

Horren bidez, besteak beste, emaitza hauek espero dira:

- Europa mailako ekarpen bat egitea, GIH gakoetan adierazitako adierazleen taula baten bidez, UPV/EHU berrikuntzako erreferente izatearen bokazioari eutsita, kasu honetan, 2030 Agendaren arloan.
- Dokumentu honen bidez, metodologia beste unibertsitate batzuekin partekatzea, UPV/EHUREN transferentzia lanarekin eta ezagutza partekatzeko bokazioarekin kontsekuentea izateko.
- UPV/EHUK garapen iraunkorraren arloan egindako aurrerapenen kontuak ematea, gardentasunez.

2.2. Zehaztutako adierazleen taularen erabilerak

UPV/EHUK etorkizunean GIHei egingo dien ekarpenari buruzko gogoeta bat egin du, eta, haren izatezko arrazoiarekin eta jardun eremuarekin bat etorrita, **EHUagenda 2030 iraunkortasunari ekin (2019-2025)** estrategia landu du, zeina bide orri bat izango baita, unibertsitatearen lana Planetaren erronka handiekin lerrokatzeko hiru sektore plan hauen hedapenaren bidez: Berdintasun Campusa, Inklusio Campusa eta Planeta Campusa.

Hemen aurkeztutako garapen iraunkorreko adierazleen taulak bide orri hori osatzen du, eta ekarpen hauek egiten dizkio:

1. EHUagenda 2030en jarraipena


- Adierazleen taula urteko jarraipen txostenak egiteko oinarria izango da.
- Adierazleen taula, sektore plan bakoitzean planteatutako adierazleekin osatuta eta sektore planen ebaluazio emaitzekin konbinatuta, oinarritzat hartuko da 2025ean, agendaren betetze mailaren ebaluazio sakon bat egiteko eta 2025-2030 aldirako mugarrak zehazteko.
- Nazio Batuen 2030 Agendan oinarritutako estrategia bat; alegia, EHUagenda 2030 GIHekin koherentea den eta lerrokatzen den adierazleen taula batekin konbinatuz gero, UPV/EHUK GIHetan laguntzeko txosten bat egin ahal izango du, izaera boluntarioa izango duena, eta, ziur aski, unibertsitate batek halako txosten bat egiten duen lehen aldia izango da.

2. Konparagarritasuna eta benchmarkinga beste unibertsitate batzuekin

- Adierazleen taulak beste unibertsitate batzuekin datuak alderatzeko aukera emango digu, baldin eta antzeko metodologia bat erabili badute.
- Era berean, adierazleen taula erreferentziatzko rankinetan parte hartzeko oinarri gisa erabiltzeko aukera planteatzen da, nazioarteko beste unibertsitate batzuekin lehiatzeko eta hobekuntza arloak identifikatzeko.

3. GIHak gizarteratzea eta unibertsitateko kideen bidez unibertsitateko testuingurura egokitzea

- Taula irakasleen artean ezagutzera eman ondoren, adierazleen zehaztapenak GIHen alderdi zehatzak ikasketa planetan txertatzeko aukera sustatuko du.

- 
- UPV/EHUren alderdi propioei lotutako adierazleak egotean, administrazio eta zerbitzuetako langileek erakundearen hobekuntza arloak zehaztu eta lehenetsi ahal izango dituzte.
 - GIH gakoetan emandako informazioak ikasleak motibatu, eta alderdi zehatzen gaineko ekarpenak egitera bultzatu ditzake.
 - Hainbat bideren bidez ikasleei GIHen lehen hurbilketa bat ematea aukera bat izan daiteke datozen urteetan GIHak profesional gehiagok ezagutu, eta haien erakundeetan aplikatu ditzaten.
 - Komunikazio gakoan argitaratutako informazioaren bidez, gizartean gero eta barneratuago dauden GIHak euskal gizartean emango dira ezagutzera.
 - Azkenik, oro har, baina gehienbat erakundeari lotutako adierazleei dagokienez, argitaratutako informazioak aukera emango digu erakundeek GIHetan egin dezaketen ekarpena UPV/EHUko enpresa kontratisten edo zerbitzu emaileen artean bultzatzeko eta txertatzeko, baita UPV/EHUrekin lankidetzan diharduten beste administrazio batzuen artean ere.

METODOLOGIA

Adierazleen taula definitzeko zereginaren zati handi batean, **kabineteko lana** egin behar izan da, bai eta UPV/EHUren **eragile askorekin kontratatzeko lana** ere, horiek eman baitute beharrezkoa den informazioa adierazleak kalkulatzeko metodoa, iturriak eta datuak definitzeko.


Azpirarraztekoa da zenbateko garrantzia izan duen horretarako eraturako **gogoeta taldearekin lan saio bat** egin izanak⁶. Jarraian aurkezten ditugun emaitzen zati handi bat saio hartan izandako eztabaidatik datoz; bertan, ikuspegi integral batez, UPV/EHUko erreferentziako GIHak eta helmugak adostu eta mugatu ziren, eta adierazleen taularen lehen zirriborroa adostu zen, saioaren aurretik egindako aurre aukeraketa batetik abiatuta.

Jarraian, saio horretatik sortutako hainbat **gogoeta orokor** jasotzen dira, oso interesgarriak direlako ondorengo pauso metodologikoak ulertzeari begira:

1. UPV/EHUK zenbait GIHtan lagun dezakeela kontsideratzen du.
2. Era berean, lagun dezakeen GIHen esparruan, erreferentziako zenbait helmuga lortzeko ekarpenak egin ditzake. UPV/EHUrentzat erreferentzia gisa balio duten edo, hala behar bada, zentzua duten helmugak identifikatzean, ez da idatzitakoa hitzez hitz kontsideratu behar; aitzitik, kontuan hartu behar da zer arlo lantzen diren eta zer helburu jakin lortu nahi diren.
3. Abiapuntuko premisa da prestakuntza eta ikerketa arloko jarduera nagusia 4. GIHri lotuta egotea, jarduerok gainerako GIHetan sakabanatu beharrean. [Esate baterako, GIH ugari egiten diote erreferentzia ikerketari arlo espezifikoetan; ostera, ikerketari lotutako alderdi guztiak 4. GIHan zentralizatzea erabaki zen, prestakuntzarekin duen lotura handia kontuan hartuta].
4. Adierazleen unitateak definitzeko orduan, garrantzitsutzat hartzen da, hala behar denean, unibertsitateko kide guztiak sartzea eta ez ikasleak soilik.
5. Adierazleen denbora esparrua, oro har, ikasturtea da, eta ez urte naturala; ikasturtea urte bateko irailaren 1ean hasten da, eta hurrengoaren abuztuaren 31n amaitzen. Urte naturalari erreferentzia egiten dioten adierazleen kasuan, erreferentziako ikasturtearen bi urteetatik lehena hartuko da.

Gogoeta talde horrek erabilitako metodologia 1. irudian laburbiltzen diren lau pausoetan egin zen.

⁶ Gogoeta taldea honako kide hauek osatua egon zen: Idoia Fernández Fernández, UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea; Estibaliz Sáez de Cámara Oleaga, UPV/EHUren Iraunkortasunaren arloko zuzendaria; Leyre Madariaga Gangoiti, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako zuzendaria; Arantza Beitia Mendarozqueta, Arabako Campuseko Campuseko Garapenerako eta Kanpo Harremanetarako zuzendaria; Joseba Albizuri Irigoyen, Bizkaiko Campuseko Garapeneraren arloko zuzendaria; Ana San Martín Azofra, Gipuzkoako Campuseko zerbitzuburua; Gaizka Zulueta Roales, UPV/EHUko Arkitektura eta Obren Zerbitzua/Gerentzia; Idoia Hernández Pintor; UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketen Zerbitzua / Gerentzia; Alex Boto Basteguieta eta María García Flecha, IHOBE Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoko kideak



1. irudia. Taula egiteko eraturako gogoeta taldearen laneko sekuentzia.

Jarraian, zehaztasun handiagoz deskribatzen dira emandako pausoak, ulertzen baitugu gida modura erabil daitezkeela beste unibertsitate edo erakunde batzuetan egin beharreko antzeko prozesuetan.

1. Abiapuntua.

Zer irismen izango du adierazleen taulak UPV/EHUren jardueretan eta zerbitzuetan?

Ikuspuntu metodologikoaren alderdi giltzarrietako bat abiapuntua finkatzea izan da, prozesuaren hainbat etapatan aztertuko diren UPV/EHUren jardueren eta zerbitzuen irismena definituz.

Abiapuntu gisa, UPV/EHUren jarduera nagusiak definitu dira. 2. irudian ageri dira.



PRESTAKUNTZA eta



IKERKETA



Horrez gainera, kontuan hartzen da UPV/EHUren **TRANSFERENTZIA** lana, iraunkortasunaren kultura eta gizarte konpromisoa unibertsitateko kideen artean eta gizartearekiko harremanean bultzatzeko eragile gisa.



Era berean, UPV/EHU berez **ERAKUNDE** bat da, 50.000 pertsona baino gehiago biltzen dituena, ikasleen, irakasleen eta bestelako langileen artean, eta hiru lurralde historikoetan kokaturako hiru campus eta fakultate eta instalazio ugari dituena, prestakuntzaz gainera bestelako jarduerak ere egiteko.



Eta horren guztiaren ardatz nagusia **IKASLEAK** dira, UPV/EHUren jarduera eta azpiegitura osoaren hartzaile nagusiak.

2. irudia. UPV/EHUren jarduera nagusiak.

Definizio horren emaitza izan da aintzat hartzea bai UPV/EHUren *ikerket*a eta *prestakuntza* jarduera, bai unibertsitateak gizartearekiko egindako *transferentzia* lana eta, jakina, *erakundearen* parte diren baliabideak eta pertsonak.

2. Helmuga.

Zer GIH lortzen lagun dezake UPV/EHUK?

UPV/EHUK datozen urteetan zer GIH lortzen lagunduko duen identifikatzeko, mapeatu dira bai gaur egun abian diren ekimenak, bai indarreko planetan jasotako helburuak eta ekintzak. 1. taulan zehazten dira.

Dagoeneko GIHetan laguntzen duten ekimenak mapeatzeko kontsultatutako iturriak	Aztertutako indarreko planak
<ul style="list-style-type: none">· UPV/EHUren Garapenerako LankidetzBulegoa 2017/18 ikasturtea.· UPV/EHUko Iraunkortasun Zuzendaritzaren 2017ko Memoria.	<ul style="list-style-type: none">· UPV/EHUren Plan Estrategikoa (2018-2021)· UPV/EHUren Ikerketa Plana (2019-2022)· Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022)· EHU2030 AGENDA, hiru planetan hedatzen dena:<ul style="list-style-type: none">· UPV/EHU ingurumena eta osasuna kudeatzeko I. Plan Pilotua (2019-2025)· UPV/EHUren III. Inklusio Plana (2019-2022)· UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. plana (2019-2022)

1. taula. UPV/EHUK zer GIH lortzen lagunduko duen identifikatzeko aztertutako dokumentuak eta planak.

Datozen urteetan UPV/EHUK zer GIH lortzen lagunduko duen aztertzean, indarrean diren planen helburuetan eta esku hartze lerroetan jarri dugu arreta. Analisiaren emaitza 2. taulan ageri da, bertan zehazten baita UPV/EHUK zer GIH lortzen lagunduko duen bere planetan aurreikusitako ekintzen implementazioaren bidez.

2019an UPV/EHUan indarrean diren planak	UPV/EHUren Plan Estrategikoa (2018-2021)	UPV/EHUren Ikerketa Plana (2019-2022)	Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022)	UPV/EHUUn ingurumena eta osasuna kudeatzeko I. Plan Pilotua (2019-2025)	UPV/EHUren III. Inklusio Plana (2019-2022)	UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. plana (2019-2022)
3 OSASUNA ETA ONGIZATEA				●		
4 KALIFATEKO HEZKUNTZA	●	●	●	●	●	●
5 GENDER-BERDINTASUNA	●					●
7 ENERJIA BERREGITZAGARRIAK				●		
8 LAN-ORAINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOIA	●		●			
9 BERRIKUNTZA ETA AZPIGERTURA		●		●		
10 DESBERDINTASUNEN MURRIKETA					●	●
11 HIRI ETA KOMUNITATE IRATZUNGORRIAK				●		
12 ENKOPPEN ETA KONTSURU AKTIBOAK				●		
13 KIJAMA GABESKERO ENUNTZA				●		
16 BAKEA ETA JUSTIZIA	●			●		
17 ITUNAK BEHARRIURAK LORTZEKO	●					
18 HEZKUNTZA ETA KULTUR ARDIA	●	●	●			

2. taula. UPV/EHUK zer GIH lortzen lagunduko duen 2019an indarrean diren planen implementazioaren bidez.

3. Bidea.

Zer helmugaren bidez lagun dezake UPV/EHUK GIHetan?

Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula bat definitzeko unean, ezinbestekoa da erreferentziatzko helburuak kontsideratzea eta mugatzea. Kontuan hartuta 2030 Agendak bere 17 GIHen bidez orotara 159 helmuga hedatzen dituela eta unibertsitateak hainbat GIHetan —ez denetan— lagundu ahal izango duela, hurrengo ariketa izan da UPV/EHUK zer GIHetan lagun dezakeen zehaztea eta zer helmugaren bidez, horietako asko ez baitaude gure unibertsitatearen jarduera esparruen barruan.

Kontuan hartuta bai UPV/EHUK dagoeneko egiten duena bai indarreko planen bidez egitea aurreikusten dena, gogoeta taldeak ondorioztatu du UPV/EHUK **13 GIH** lortzen lagun dezakeela (17 GIHetatik 12 eta 17+1) **35 helmugaren** bidez. Helmugak ez dira hitzez hitz kontsideratzen, baina proposatzen dituzten arloen eta helburuen arabera erreferentziatzko helmuga gisa egokitzen dira. Hirugarren taulan zehazten dira.

UPV/EHUrako erreferentziatzko GIHak			
3 OSASUNA ETA ONGIZATEA 	3 helmuga < 3.4 3.5 3.C	10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA 	2 helmuga < 10.2 10.3
4 KALITATEZKO HEZKUNTZA 	5 helmuga < 4.3 4.4 4.5 4.7 4.a	11 HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK 	2 helmuga < 11.2 11.7
5 GENERO-BERDINTASUNA 	5 helmuga < 5.1 5.2 5.4 5.5 5.C	12 EKOIZPENA ETA KONTSUMO ARDURATSUA 	4 helmuga < 12.3 12.4 12.5 12.7
7 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK 	2 helmuga < 7.2 7.3	13 KLIMA BABESTEKO EKINTZA 	1 helmuga — 13.3
8 LAN-DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA 	3 helmuga < 8.3 8.5 8.8	16 BAKEA ETA JUSTIZIA 	3 helmuga < 16.6 16.7 16.a
9 BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA 	2 helmuga < 9.4 9.5	17 ITUNAK HELBURUAK LORTZEKO 	3 helmuga < 17.2 17.6 17.17

3. taula. Nazio Batuen erreferentziatzko GIHak eta helmugak UPV/EHUrako⁷.

⁷ Dokumentu honen hasieran aipatutako Nola lantzen hasi GIHak unibertsitateetan (REDS/SDSN) gidak aipatutako helmugekin bat datozen helmugak azpimarratzen dira.

4. Nola kontatu.

Zer adierazleren bidez zenbatuko dugu UPV/EHUK GIHei egindako ekarpena?

Behin UPV/EHUK zer GIH lortzen lagun dezakeen identifikatuta eta erreferentziazko helmugak mugatuta, adierazleen taula bat zehaztu da, unibertsitateen errealitatera egokitutako jarraipena egitea ahalbidetuko duena.

Hirugarren taulan, zenbakietan ematen da Nazio Batuen 17 GIHen hedapena eta UPV/EHUren kasura egokitutako hedapena.

Jarraian, UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula eratzen duten adierazleak laburbiltzen dituen taula bat ematen dugu, GIH bakoitzeko egituratuta.

AGENDA 2030en hedapena	OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE	UPV EHU
GIH	17	12 Horiei 17+1 gehitu behar zaie Hizkuntza eta Kultura dibertsitatea bermatzea
HELMUGAK	169	35
ADIERAZLEAK	232	58

4. taula. UPV/EHUrako GIHen, erreferentzia helmugen eta adierazleen kopurua.

UPV/EHUREN GARAPEN IRAUNKORREKO ADIERAZLEEN TAULA

3 OSASUNA
ETA ONGIZATEA



1. Bizi estilo osasuntsuak sustatzeko ekimenetan parte hartzen duten unibertsitateko kideak.
2. Osasun eta ongizate programetan artatutako unibertsitateko kideak.
3. Osasunari lotutako lanbideetan graduatutako pertsonen kopurua.

4 KALITATEZKO
HEZKUNTZA



4. Matrikulatutako ikasleak.
5. Unibertsitateko lehen urtean diren ikasleak.
6. Eskaintza akademikoa (Graduko titulak, masterrak, doktoregoak eta berezko titulak)..
7. Garapen Iraunkorreko Helburuetan (GIH) laguntzen duten GrALen kopurua.
8. Ikasle gradudunak.
9. GIHetan laguntzen duten tesien kopurua.
10. GIHetan laguntzen duten ikertalde finkatuen kopurua.
11. Tituludunek jasotako gaitasunen balorazioa.
12. Ikasleen gogobetetze maila UPV/EHUrekiko.
13. Iraunkortasunerako berrikuntza proiektuetan parte hartzen duten irakasleen kopurua.

5 GENERO-
BERDINTASUNA



14. Genero indarkeriari buruzko UPV/EHUren protokoloaren aplikazioan izandako jardueren kopurua.
15. Emakumezko ikertzaile liderren ehunekoa, ikertaldeetan.
16. Emakumeen ehunekoa, kargu akademikoetan.
17. Emakume katedradun edo osoen ehunekoa, osoarekiko.
18. Ikasketa feministak eta generokoak graduondokoan egresatutako pertsonen kopurua.

7 ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK



19. Energia berriztagarrien ekoizpena.
20. Iturri berriztagarrietako ehunekoa energia kontsumoan.
21. A, B edo C eraginkortasun energetiko kalifikazio ziurtagiria duten RITE instalazioen ehunekoa.
22. A, B edo C eraginkortasun energetiko kalifikazio ziurtagiria duten eraikinen ehunekoa.

8 LAN-DUINA
ETA HAZKUNDE
EKONOMIKOA



23. Sortutako spin-offen kopurua.
24. Kualifikazio handiko enpleguen kopurua, unibertsitateak sortutako enpresetan.
25. 25. Ikasle egresatuen enplegu tasa, hiru urtera.
26. Lehen enplegua lortu arte igarotako denbora.
27. Kontratu mugagabea duten UPV/EHUko langileen ehunekoa.

9 BERRIKUNTZA
ETA AZPIEGITURA



- 28. BEG inbentarioa.
- 29. Ingurumen portaera hobetzeko plana indarrean duten ikastegiaren ehunekoa.
- 30. Ingurumen ziurtagiriren bat duten ekimenen kopurua.
- 31. GIH lortzen laguntzen duten ustiapen patente edo lizentzien kopurua.

10 DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEA



- 32. Inklusio programetan hartutako ikasleen kopurua.
- 33. Ekintza solidarioetan parte hartzen duten ikasleen kopurua (boluntarioak).
- 34. Ordainsari handieneko eta gutxieneko langileen arteko soldata desberdintasuna.
- 35. Ezgaitasuna duten UPV/EHUko langileen ehunekoa.

11 HIRI ETA
KOMUNITATE
IRAUNKORRAK



- 36. Garraio iraunkorra (oinez, bizikleta, garraio publikoa) egunero erabiltzen duten unibertsitateko kideak.
- 37. Bizikletak aparkatzeko plazaren kopurua.
- 38. Unibertsitate campusetan berdeguneek eta lorategiek hartutako azaleraren ehunekoa.

12 EKOIZPENA ETA
KONTSUMO
ARDURATSUA



- 39. Janaria alferrik galtzea.
- 40. Hondakin arriskutsuen sorrera laborategietan eta tailerretan.
- 41. Aparatu Elektrikoen eta Elektronikoen Hondakinen (AEEH) sorrera.
- 42. Gaikako bilketa tasa.
- 43. Hondakinen sorrera.
- 44. Etika, gizarte eta ingurumen klausulak izan dituzten lizitazioen ehunekoa.
- 45. Ingurumenari lotutako lanbideetan graduatutako pertsonen kopurua.

13 KLIMA
BABESTEKO
EKINTZA



- 46. Klima aldaketaren gaiari buruzko hezkuntza jardueren kopurua.
- 47. Klima aldaketari buruzko ikerketen kopurua.

16 BAKEA ETA
JUSTIZIA



- 48. UPV/EHUren gardentasun indizea.
- 49. Kontuak ematea.
- 50. Unibertsitateko kideen parte hartzea, erabakiak hartzean.
- 51. Tokiko, eskualdeko, estatuko edo Europako gobernuetan zerbitzu bereziak ematen ari diren UPV/EHUko langileen kopurua.

17 ITUNAK
HELBURUAK
LORTZEKO



- 52. Matrikulatuen %0,7 garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetara bideratzea borondatez eskatzen duten ikasleen kopurua.
- 53. Garapenerako lankidetzaren proiektuen kopurua.
- 54. Garapenerako lankidetzaren jardueretan parte hartzen duten ikasleen kopurua.
- 55. Administrazio publikoekin eta gizarte erakundeekin izenpetutako hitzarmen kopurua.
- 56. UPV/EHUren parte hartzea, garapen iraunkorrari lotutako sareetan.

18 HIZKUNTZA
ETA KULTUR
ANIZTASUNA



- 57. Graduako ikasketetan euskaraz eskaintako ECTS kredituen ehunekoa.
- 58. Doktorego tesien kopurua euskaraz.

HASIERAKO EGOERA: 2017/18 IKASTURTEKO EMAITZAK

UPV/EHUren garapen iraunkorreko adierazleen taula bat definitzeko, beharrezkoa izan da lehen neurketa bat egitea. Neurketa egiteko, 2017/18 ikasturteko datuetara jo dugu. Datu horiek oinarri-zko lerroa eratzen dute; gero, hura oinarri hartuta, datuak monitorizatu, eta lorpen mailak baloratuko dira. Jarraian, 4. taulan, UPV/EHUK GIHetan duen eginkizunarekiko koherentziaz zehaztutako adierazleen taula laburbiltzen da, eta 2017/18 ikasturtearen datuak ematen dira.

2017/18 ikasturteko taulari buruzko ***hainbat gogoeta***:

- Oro har, ikasturteari buruzko datuak izan badira ere –kasu honetan 2017/18 ikasturtea–, adierazle batzuk urte naturalari dagozkio eta, kasu horietan, erreferentziako urtea lehengoa da; hau da, 2017a. Horrelakoak adierazlearen unitatean adierazten dira.
- Adierazlea urtero kalkulatzeko ez denetakoa bada, eskura dagoen azken datua ematen da, eta zer urtetakoa den esaten da, adierazlearen izen-buruaren azpian jarritako ohar batean.
- Zenbait kasutan, datua ez dago eskuragarri; batez ere, informazioa biltzeko prozedura berriak sortzea eskatzen duten adierazle berriak direnean; dena dela, datozen ikasturteetarako kalkulatuko dira. Horrelakoetan, “Ez dago eskura” adierazten da.
- Oro har, unitateak pertsonen egiten dienean erreferentzia, unibertsitateko kide guztiak hartzen dira kontuan; hau da, irakasle-ikertzaileak, AZPak eta ikasleak.
- I. eranskinean, zenbait adierazleren datuei oharrak egiten zaizkie.

3. GIH. Bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietako pertsonen ongizatea sustatzea

1. Bizi estilo osasuntsuak sustatzeko ekimenetan parte hartzen duten unibertsitateko kideak.	12.593	% 42,7 emakumeak % 57,3 gizonak
2. Osasun eta ongizate programetan artatutako unibertsitateko kideak.	6.351	% 60,3 emakumeak % 39,7 gizonak
3. Osasunari lotutako lanbideetan graduatutako pertsonak. Oharra: 2017-2018ko datua, Graduak Tituluak eta Masterrak bakarrik.	1.312	% 78,3 emakumeak % 21,6 gizonak

4. GIH. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza aukerak sustatzea

4. Matrikulatutako ikasleak.	36.249	% 53 emakumeak % 47 gizonak
5. Unibertsitateko lehen urtean diren ikasleak.	8.762	% 54 emakumeak % 46 gizonak
6. Eskaintza akademikoa (Graduko tituluak, masterrak, doktoregoak eta berezko tituluak).	274	
7. GIHetan laguntzen duten GRALen kopurua.	95	% 47,3 emakumeak % 52,7 gizonak
8. Ikasle gradudunak.	8.504	%79 gradua %21 masterra % 56,6 emakumeak % 43,4 gizonak
9. GIHetan laguntzen duten tesien kopurua.	5	4 emakume 1 gizon
10. GIHetan laguntzen duten ikertalde finkatuen kopurua.	10	
11. Tituludunek jasotako gaitasunen balorazioa.	6,6	
12. Ikasleen gogobetetze maila UPV/EHUrekiko.	6,8	
13. Iraunkortasunerako berrikuntza proiektuetan parte hartzen duten irakasleen kopurua.	137	% 49,6 emakumeak % 50,4 gizonak

5. GIH. Genero berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea

14. Genero indarkeriari buruzko UPV/EHUren protokoloaren aplikazioan izandako jardueren kopurua.	19	
15. Emakumezko ikertzaile liderren ehunekoa, ikertaldeetan.	%33	
16. Emakumeen ehunekoa, kargu akademikoetan.	%47,4	
17. Emakume katedradun edo osoen ehunekoa, osoarekiko.	%25,5	
18. Ikasketa Feministak eta Generokoak graduondokoetan egresatutako pertsonak.	55	% 96,4 emakumeak % 3,6 gizonak

7. GIH. Denontzako energia eskuragarria, segurua, iraunkorra eta modernoa bermatzea

19. Energia berriztagarrien ekoizpena.	21,64 kWh/pertsona-ikasturteko
20. Iturri berriztagarrietako ehunekoa energia kontsumoan.	%46
21. A, B edo C energia eraginkortasuneko kalifikazio ziurtagiria duten RITE instalazioen ehunekoa.	Ez dago erabilgarri
22. A, B edo C energia eraginkortasuneko kalifikazio ziurtagiria duten eraikinen ehunekoa.	%75,6

8. GIH. Hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta iraunkorra, enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina sustatzea denontzat

23. Sortutako spin-offen kopurua.	14	
24. Kalifikazio handiko enpleguen kopurua, unibertsitateak sortutako enpresetan.	32	% 35 emakume % 65 gizonak
25. Ikasle egresatuen enplegu tasa, hiru urtera.	% 83,2	Emakumeak: % 82,1 Gizonak: % 84,6
26. Lehen enplegua lortu arte igarotako denbora.	12 hilabete	Emakumeak: 12 Gizonak: 11
27. Kontratu mugagabea duten UPV/EHUko langileen ehunekoa.	%44	

9. GIH. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta iraunkorra bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea

28. BEG inbentarioa.	Ez dago erabilgarri
29. Ingurumen portaera hobetzeko plana indarrean duten ikastegiaren ehunekoa.	%45
30. Ingurumen ziurtagiriren bat duten ekimenen kopurua.	1
31. GIHak lortzen laguntzen duten ustiapen patente edo lizentzien kopurua.	10

10. GIH. Desberdintasuna murriztea herrialdeetan eta herrialdeen artean

32. Inklusio programetan hartutako ikasleen kopurua.	789	% 56,9 emakumeak % 43,1 gizonak
33. Ekintza solidarioetan parte hartzen duten ikasleen kopurua (boluntarioak).	187	% 68,4 emakumeak % 31,5 gizonak
34. Ordainsari handieneko eta gutxieneko langileen arteko soldata desberdintasuna.	Ez dago erabilgarri	
35. Ezgaitasuna duten UPV/EHUko langileen ehunekoa.	Ez dago erabilgarri	

11. GIH. Hiri eta giza asentamendu inklusiboak, seguruak, moldagarriak eta iraunkorrak lortzea

36. Garraio iraunkorra (oinez, bizikleta, garraio publikoa) egunero erabiltzen duten unibertsitateko kideak.	%79,3	Emakumeak: % 79,5 Gizonak: % 78,9
37. Bizikletak aparkatzeko plazen kopurua.	2 plaza 100 pertsonako	
38. Unibertsitate campusetan berdeguneek eta lorategiek hartutako azaleraren ehunekoa.	%31,7	

12. GIH. Kontsumitzeko eta produzitzeko modu iraunkorrak bermatzea

39. Janaria alferrik galtzea.	Ez dago eskura	
40. Hondakin arriskutsuen sorrera laborategietan eta tailerretan.	69,847 t/urte naturala 1,48 kg/pertsona-urtea	
41. Aparatu Elektrikoen eta Elektronikoen Hondakinak (AEEH).	22,337 t/urte naturala 0,47 kg/pertsona-urtea	
42. Gaikako bilketa tasa.	%42,1	
43. Hondakinen kudeaketa.	8,78 kg/pertsona-urtea	
44. Etika, gizarte eta ingurumen klausulak izan dituzten lizitazioen ehunekoa. Oharra: Kontratu nagusiez ari gara.	%56	
45. Ingurumenari lotutako ikasketak dituzten gradudunak.	213	% 56,3 emakumeak % 43,7 gizonak

13. GHI. Klima aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea

46. Klima aldaketaren gaiari buruzko hezkuntza jardueren kopurua.	2
47. Klima aldaketari buruzko ikerketa kopurua.	49

16 GIH. Garapen iraunkorrerako gizarte baketsuak eta inklusiboak bultzatzea; justizia guztien esku jartzen laguntzea, eta kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak eraikitzea, maila guztietan

48. UPV/EHUn gardentasun indizea.	23	Kategoria: Gardena. Gardentasunari buruzko 26 adierazleetatik 20 gutxienez betetzen ditu Konpromiso eta Gardentasuna Fundazioaren rankinga
49. Kontuak ematea: · Ikastegiak aurkeztutako urteko kudeaketa txostenen ehunekoa. · Tituluen jarraipen txosten onartuen ehunekoa. c- Berrikusi eta eguneratutako zerbitzu gutunehunehunekoa.	%100 %100 %25	
50. Unibertsitateko kideen parte hartzea, erabakiak hartzean.	%70,34 Irakasle-ikertzaileak %60,35 AZPko langileak %5,04 Ikasleak	
51. Tokiko, eskualdeko edo estatuko gobernuetan zerbitzu bereziak ematen ari diren UPV/EHUko langileen kopurua.	24	

17. GIH. Garapen Iraunkorrerako Munduko Aliantza ezartzeko bitartekoak indartzea eta hura indarberritzea

52.Matrikularen % 0,7 garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetara bideratzea borondatez eskatzen duten ikasleen kopurua.	2.892	% 50,4 emakumeak % 49,6 gizonak
53.Garapenerako lankidetzaren proiektuen kopurua.	5	
54.Garapenerako lankidetzaren jardueretan parte hartzen duten ikasleen kopurua.	297	% 78,8 emakumeak % 21,2 gizonak
55.Administrazio publikoekin eta gizarte erakundeekin izenpetutako hitzarmenen kopurua.	180	
56.UPV/EHUren parte hartzea, garapen iraunkorrari lotutako sareetan.	4	

17+1 GIH. Hizkuntza eta kultura aniztasuna bermatzea

57.Graduko ikasketetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa.	%84	
58.Doktorego tesien kopurua euskaraz.	28	% 64,3 emakumeak % 35,7 gizonak

5. taula. UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleak, 2017/18 ikasturtea.



ADIERAZLEEN FITXA METODOLOGIKOAK

Jarraian, UPV/EHUren *Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula* osatzen duten adierazleen banakako fitxa metodologiak aurkezten ditugu:





1. Bizi estilo osasuntsuak sustatzeko ekimenetan parte hartzen duten unibertsitateko kideak.

Definizioa

UPV/EHUK bultzatutako ekimen hauetan parte hartzen duten unibertsitateko kideak:

- Kirol ekintza.
- EHU osasungarria programaren jarduerak (UPV/EHUK Unibertsitate Osasuntsuen Espainiako Sarean (REUS) parte hartzearen ondorioz sortutakoa). Programa horretan, jarduera ugari antolatzen dira, portaera osasuntsuak bultzatzeko asmoz. Adibidez: Tailer agroekologikoak, fruta

maitaleen astea, egun jakinetan izandako parte hartzea, hala nola HIESAren aurkako borrokaren mundu eguna...).

Unitatea	Pertsona kopurua	Sexuaren arabera banatua	Bai
Iturria	Hiru campusetako kirol zerbitzuak Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	Ikasturte bakoitzean aipatutako ekimenetan parte hartzen duten unibertsitateko kideen (emakumeak+gizonak) batura. Sexuaren araberako banaketa: <ul style="list-style-type: none"> • Ikasturte bakoitzean aipatutako ekimenetan parte hartzen duten emakumeen batura / Ikasturte bakoitzean aipatutako ekimenetan parte hartzen duten pertsonen (emakumeak+gizonak) batura. • Ikasturte bakoitzean aipatutako ekimenetan parte hartzen duten gizonen batura / Ikasturte bakoitzean aipatutako ekimenetan parte hartzen duten pertsonen (emakumeak+gizonak) batura. 		
Erreferentziako GIH	3. Bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietako pertsonen ongizatea sustatzea.		
Nazio Batuen erreferentziako xedeak	3.4 Hemendik 2030era, gaixotasun ez-kutsakorren bidezko hilkortasun goiztiarra heren bat murriztea, haien prebentzio eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea bultzatzea.		



2. Osasun eta ongizate programetan artatutako unibertsitateko kideak.

Definizioa

Ikasturte bakoitzean honako zerbitzu hauetan artatutako unibertsitateko kideak:

- Arreta Psikologikorako Zerbitzua (APZ).
- Osasun langileen arreta medikoa.
- Odontologia Klinika.

Unitatea	Pertsona kopurua	Sexuaren arabera banatua	Bai
Iturria	APZ Prebentzio Zerbitzua Odontologia Klinika	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	<p>Ikasturte bakoitzean aipatutako zerbitzuetan artatutako unibertsitateko kideen (emakumeak+gizonak) batura.</p> <p>Sexuaren araberako banaketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aipatutako zerbitzuetan ikasturte bakoitzean artatutako emakumeen batura / Aipatutako zerbitzuetan ikasturte bakoitzean artatutako pertsonen (emakumeak+gizonak) batura. • Aipatutako zerbitzuetan ikasturte bakoitzean artatutako gizonen batura / Aipatutako zerbitzuetan ikasturte bakoitzean artatutako pertsonen (emakumeak+gizonak) batura. <p>Mugikortasun inkesta.</p>		
Erreferentziazko GIH	3. Bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietako pertsonen ongizatea sustatzea.		
Nazio Batuen erreferentziazko xedeak	<p>3.4 Hemendik 2030era, gaixotasun ez-kutsakorren bidezko hilkortasun goiztiarra heren bat murriztea, haien prebentzio eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea bultzatzea.</p> <p>3.5 Gai mendekotasun sortzaileen abusuaren prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazianteen erabilera okerra eta alkohol kontsumo kaltegarria aintzat hartuta.</p>		



3. Osasunari lotutako lanbideetan graduatutako pertsonak.

Definizioa

Ikasturte bakoitzean, Osasun Zientziak taldearen barruko graduatan, masterretan eta berezko tituluetan egresatutako ikasleen kopuru osoa; hau da: Erizaintza, Farmazia, Fisioterapia, Medikuntza, Giza Nutrizioa eta Dietetika, Odontologia eta Psikologia.

Unitatea	Pertsona kopurua	Sexuaren arabera banatua	Bai
Iturria	Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordetza	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	Ikastegi propio nahiz atxikietan, definizioan aipatutako tituluetan egresatutako ikasleen kopuru osoa. Oharra: Adierazle hau "Times Higher Education University Impact Rankings v1.3"ren 3.ii adierazleari lotuta dago.		
Erreferentziazko GIH	3. Bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietako pertsonen ongizatea sustatzea.		
Nazio Batuen erreferentziazko xedeak	3.c Osasunaren finantzaketa eta osasun langileen kontratazioa, hobekuntza, erakarpina eta atxikipena nabarmen areagotzea garatze bidean diren herrialdeetan; bereziki, gutxien garatutako herrialdeetan eta garatze bidean diren uharte estatu txikietan.		



4. Matrikulatutako ikasleak.

Definizioa

Gratu eta graduondokoetan matrikulatutako ikasle-
leen kopuru osoa.

Unitatea	Ikasleen kopurua	Sexuaren arabera banatua	Bai
Iturria	UPV/EHUko datuen ataria	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	<p>Ikasturtean, gradu eta graduondokoetan matrikulatutako ikasleen batura:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasturte bakoitzean, gradu eta graduondokoetan matrikulatutako emakumezko ikasleen batura / Ikasturte bakoitzean, gradu eta graduondokoetan matrikulatutako ikasleen batura. • Ikasturte bakoitzean, graduetan eta graduondokoetan matrikulatutako gizonezko ikasleen batura/Ikasturte bakoitzean, graduetan eta graduondokoetan matrikulatutako ikasleen batura. <p>Oharra: Adierazle hau "Times Higher Education University Impact Rankings v1.3"ren 8.ii adierazleari lotuta dago.</p>		
Erreferentziazko GIH	<p>4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza aukerak sustatzea.</p>		
Nazio Batuen erreferentziazko xedeak	<p>4.3 Hemendik 2030era, gizon eta emakume guztiei kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakorako sarbide berdintasuna bermatzea, unibertsitate prestakuntza ere barne hartuta.</p> <p>4.4 Hemendik 2030era, enplegua, lan duina eta ekintzailtza eskuratzeko beharrezkoak diren gaitasunak —teknikoak eta profesionalak bereziki— dituzten gazteen eta helduen kopurua nabarmen handitzea.</p> <p>4.5 Hemendik 2030era, hezkuntzaren arloko genero desberdintasunak ezabatzea, eta hezkuntzaren eta lanbide heziketaren maila guztietan sarbidea berdintasunez ziurtatzea ahultasun egoeran diren pertsona guztiei, barne hartuta ezgaitasunak dituzten pertsonak, herri indigenetakoak eta ahultasun egoeran diren haurrak.</p> <p>4.a Haurren eta ezgaitasunak dituzten pertsonen beharrak eta genero desberdintasunak aintzat hartuko dituzten instalazioak eraikitzea eta egokitzea, guztiontzako ikaskuntza ingurune seguruak, ez bortitzak, inklusiboak eta eraginkorrak eskainiko dituztenak.</p>		



5. Unibertsitateko lehen urtean diren ikasleak.

Definizioa

Unibertsitateko ikasketetan (graduak bakarrik) lehenengoz matrikulatzen diren ikasleen kopuru osoa.

Unitatea	Ikasleen kopurua	Sexuaren arabera banatua	Bai
Iturria	Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordetza	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	<p>Ikasturtean, ikasketa titulu batean (graduak bakarrik) lehenengoz matrikulatutako ikasleen batura:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasturtean, ikasketa titulu batean (graduak bakarrik) lehenengoz matrikulatutako emakumezko ikasleen batura / Ikasturtean, ikasketa titulu batean (graduak bakarrik) lehenengoz matrikulatutako ikasleen batura. • Ikasturtean, ikasketa titulu batean (graduak bakarrik) lehenengoz matrikulatutako gizonetzko ikasleen batura / Ikasturtean, ikasketa titulu batean (graduak bakarrik) lehenengoz matrikulatutako ikasleen batura. <p>Oharra: sarbide modua edozein delarik (izen ematea, lekualdaketak eta egokitzapenak). GRADURAKO UPV/EHUren IZENA: matrikula berriak ikasketan Kontuan hartzen dira bai ikastegi propioak bai atxikiak. Oharra: Adierazle hau "Times Higher Education University Impact Rankings v1.3"ren 4.iv eta 5.ii adierazleei lotuta dago.</p>		
Erreferentziazko GIH	<p>4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta denentzako ikaskuntza aukerak sustatzea bizitza osoan.</p>		
Nazio Batuen erreferentziazko xedeak	<p>4.3 Hemendik 2030era, gizon eta emakume guztiei kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakorako sarbide berdintasuna bermatzea, unibertsitate prestakuntza barne hartuta.</p> <p>4.5 Hemendik 2030era, hezkuntzaren arloko genero desberdintasunak ezabatzea, eta hezkuntzaren eta lanbide heziketaren maila guztietan sarbidea berdintasunez ziurtatzea ahultasun egoeran diren pertsona guztiei, barne hartuta ezgaitasunak dituzten pertsonak, herri indigenetakoak eta ahultasun egoeran diren haurrak.</p>		



6. Eskaintza akademikoa.

Definizioa

Ikasturte bakoitzean eskainitako tituluen kopuru osoa, graduak, masterrak, doktoregoak eta berezko tituluak kontuan hartuta.

Unitatea	Graduak, masterrak, doktoregoak eta berezko tituluak	Sexuaren arabera banatua	Ez dagokio
Iturra	UPV/EHUko datuen ataria	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	"Eskaintza akademikoko" tituluen batura: graduak, masterrak, doktoregoak eta berezko tituluak		
Erreferentziazko GIH	4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza aukerak sustatzea.		
Nazio Batuen erreferentziazko xedeak	4.4 Hemendik 2030era, enplegua, lan duina eta ekintzailtza eskuratzeko beharrezkoak diren gaitasunak —teknikoak eta profesionalak bereziki— dituzten gazteen eta helduen kopurua nabarmen handitzea.		



7. GIHetan laguntzen duten GRALen kopurua.

Definizioa

GIHetan laguntzen duten Gradu Amaierako Lanen kopurua.

Unitatea	GRAL kopurua	Sexuaren arabera banatua	Bai
Iturria	Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	<p>Hainbat ekimenen batura:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Gure GRALek mundua aldatzeko balio dute" UPV/EHUko Ikasleen Kongresuan aurkeztutakoak. • Genero ikuspegia sartzea saritzen duten sarien deialdiak (Aculodi eta Goyri). • Campus Bizia Lab programan, OCEAN i³ programan, Gaztenpatian, Aculodin eta GIHetan laguntzen duten beste programa batzuetan egindako GRALak, ikasturteari dagozkionak eta sexuaren arabera banatuak. 		
Erreferentziazko GIH	<p>4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza aukerak sustatzea.</p>		
Nazio Batuen erreferentziazko xedeak	<p>4.7 Hemendik 2013era, ikasle guztiek garapen iraunkorra sustatzeko behar diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, honako hauen bidez: garapen eta bizi estilo iraunkorretarako hezkuntza, giza eskubideak, genero berdintasuna, bakearen eta bortizkeriarik ezaren kulturaren sustapena, munduko herritartasuna eta kultura aniztasunaren balorazioa, eta garapen iraunkorrerako kulturaren ekarpena.</p>		



8. Graduatutako ikasleak.

Definizioa

Graduko eta masterreko tituluetan graduatutako ikasleen kopuru osoa. Gradu eta masterren arabera bereizita.

Unitatea	Ikasleen kopurua	Sexuaren arabera banatua	Bai
Iturria	UPV/EHUko datuen ataria Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordetza	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	<p>Ikasturtean, graduko eta masterreko tituluetan graduatutako ikasleen batura:</p> <p>Sexuaren araberako banaketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasturtean graduko eta masterreko tituluetan graduatutako emakumezko ikasleen batura / Ikasturtean, graduko eta masterreko tituluetan graduatutako ikasleen batura. Ikasturtean graduko eta masterreko tituluetan graduatutako gizonezko ikasleen batura / Ikasturtean, graduko eta masterreko tituluetan graduatutako ikasleen batura. <p>Gradu eta masterren arabera bereizita:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasturtean, graduko tituluetan graduatutako ikasleen batura / Ikasturtean, graduko eta masterreko tituluetan graduatutako ikasleen batura. Ikasturtean, masterreko tituluetan graduatutako ikasleen batura / Ikasturtean, graduko eta masterreko tituluetan graduatutako ikasleen batura. <p>Oharra: Adierazle hau "Times Higher Education University Impact Rankings v1.3"ren 4.iv eta 5.v adierazleei lotuta dago.</p>		
Erreferentziazko GIH	4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza aukerak sustatzea.		
Nazio Batuen erreferentziazko xedeak	4.4 Hemendik 2030era, enplegua, lan duina eta ekintzailtza eskuratzeko beharrezkoak diren gaitasunak —teknikoak eta profesionalak bereziki— dituzten gazteen eta helduen kopurua nabarmen handitzea.		



9. Garapen Iraunkorrerako Helburuetan laguntzen duten tesiak.

Definizioa

Garapen Iraunkorrerako Helburuetan ekarpenen bat egin duten tesien kopurua.

Unitatea	Kopurua	Sexuaren arabera banatua	Bai
Iturria	Ikerkuntzaren arloko Errektoreordetza	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	<p>Gaur egun kalkulatzeko metodoa honako hau da: Defendatutako tesien esteka: https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/defendatutako-tesiak</p> <ol style="list-style-type: none"> 2017ko irailetik 2018ko abuztura defendatutako doktorego tesiak hartuko dira aintzat (arlo guztiak). [Adi! Arlo bakoitzean orrialde bat baino gehiago egon daiteke] Bilaketa egiteko: <ol style="list-style-type: none"> Hautatu "Bilatu/Webgune honetan" aukera. Bilatu gako hitzak banan banan (Desarrollo sostenible, sostenibilidad, agenda 2030, garapen iraunkorra, garapen jasangarria, jasangarritasuna, iraunkortasuna, sustainable development, sustainability, 2030 Agenda). Bilatu gako hitzak banan banan. Zenbatu bakarrik adierazitako datan defendatutako tesiak (irail17-abuz18), eta berrikusi izenburu guztiak, GIHetan ekarpenen bat egiten dutela baieztatzeko. Bilaketaren ondoren, kontabilizatu eta identifikatu (izenburuaz) aintzat hartu direnak. <p>Etorkizunean, GIHetan laguntzen duten tesiak zenbatzeko, tesien defentsari lotutako protokoloen batean zuzeneko galdera bat sartzen saiatuko gara.</p>		
Erreferentziako GIH	<p>4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza aukerak sustatzea.</p>		



10. Garapen Iraunkorrerako Helburuetan laguntzen duten ikertalde finkatuak.

Definizioa

Ikasturtean indarrean diren eta garapen iraunkorra-ri lotuta dauden ikertalde finkatuen kopurua.

Unitatea	Kopurua	Sexuaren arabera banatua	Ez dagokio
Iturria	Ikerkuntzaren arloko Errektoreordetza Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	<p>Gaur egun kalkulatzeko metodoa honako hau da: Ikertalde finkatuetako taldeen esteketan:</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Kokapenaren arabera: https://www.ehu.es/es/web/enpresa/transferentzia-eta-berrikuntza-eskaintza-kokapenaren-arabera. b. Jakintza arloaren arabera: https://www.ehu.es/es/web/enpresa/transferentzia-eta-berrikuntza-eskaintza-arloaren-arabera. <p>Bilaketa egiteko:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hautatu "Bilatu/Webgune honetan" aukera. 2. Bilatu gako hitzak banan-banan (Desarrollo sostenible, sostenibilidad, agenda 2030, garapen jasangarria, garapen iraunkorra, jasangarritasuna, iraunkortasuna, sustainable development, sustainability, 2030 Agenda). 3. Zenbatu zerrendan agertzen diren taldeak, martxan eta finkatuta daudela ulertzen baita. 4. Zenbatzen dira, baldin eta gako hitzak izenburuan agertzen badira edo taldeak identifikatutako gako hitzetan. 5. Bilaketaren ondoren, kontabilizatu eta identifikatu (izenburuaz) aintzat hartu direnak. <p>Etorkizunean, horiek bizkor identifikatzeko bitarteko bat ezarri behar da.</p>		
Erreferentziako GIH	<p>4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza aukerak sustatzea.</p>		



11. Tituludunek jasotako gaitasunen balorazioa.

Definizioa

Tituludunek jasotako ikaskuntzaren balorazioa, Lanbideren inkestan jasotakoa, honako hauek biltzen ditu:

Irakaskuntza:

- Prestakuntza teorikoa.
- Prestakuntza praktikoa (unibertsitatean)
- Praktikak "in situ" enpresan.
- Hizkuntza politika (euskara-gaztelania eskaintza)
- Baliagarria prestakuntza zientifiko-humanista eskuratzeko.
- Baliagarria lana bilatzeko.

Unitatea	Indizea 1-10	Sexuaren arabera banatua	Ez dagokio
Iturria	Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	Lanbideko inkestaren V. kapituluaren (Unibertsitatearen balorazioa) irakaskuntza azpiatalean datuak dituzten itemen batez besteko balioa.		
Erreferentziako GIH	4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza aukerak sustatzea.		



12. Ikasleen gogobetetze maila UPV/EHUrekiko.

Definizioa

Tituludunek unibertsitateari emandako balorazioa, Lanbideren inkestan jasotakoa, honako hauek biltzen ditu:

Irakasleak:

- Gaitasun pedagogikoa.
- Irakasleen ezagutzak.
- Gertutasuna.

Irakaskuntza:

- Prestakuntza teorikoa.
- Prestakuntza praktikoa (unibertsitatean)
- Praktiak "in situ" enpresan.
- Hizkuntza politika (euskara-gaztelania eskaintza).
- Baliagarria prestakuntza zientifiko-humanista eskuratzeko.
- Baliagarria lana bilatzeko.

Instalazioak eta ekipamendua:

- Ikasgela praktikoak eta laborategiak.
- Informatika aretoak.
- Liburutegiak eta ikasteko gelak.
- Sarbideak eta garraioa.
- Kafetegia eta jantokia.

Beste zerbitzu batzuk:

- Unibertsitateko administrazio zerbitzua.
- Beste zerbitzu batzuk (kirolak, IAZ, ostatua...).

Unitatea	Indizea 1-10	Sexuaren arabera banatua	Ez dagokio
Iturria	Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza	Kalkulatzeko maiztasuna	Urtekoa
Kalkulatzeko metodologia	Lanbideko inkestaren Unibertsitatearen balorazioari buruzko V. kapituluak datuak dituzten itemen batez besteko balioa.		
Erreferentziako GIH	4. Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza aukerak sustatzea.		



